

 <b>DEBAKO UDALA</b> Erregistro orokorra  <b>2020 ABE. 10</b>	
SARRERA <i>Entrada</i>	IRTEERA <i>Salida</i>
Zk. <b>1785</b>	Zk. <b>—</b>

**DEBAKO UDALA**  
**ALKATE JAUNA**

“IZAN BIDEA”

Beste behin ere, preso eta iheslariak bizi duten egoerari irtenbidea eman behar zaiola adierazteko urtarrilaren 9an Euskal Herriko herri eta auzoetan kalera aterako gara konponbidea beharrezkoa dela adierazteko.

Norabide honetan urratsak ematen jarraitzeko asmoa dugu. Bidea egiten jarraitzekoa. Zoritxarrez, oraindik hemen ehundaka preso etxetik ehunka kilometrotara daude, oraindik ere preso gehiengoak lehen graduan edo zigor graduan dago, oraindik ere emakume presoak bakartuak jarraitzen dute, ehun motxiladun haur inguru daude eta preso gaixoak heriotzera arte espetxean mantentzen dituzte... Azken finean, oraindik ere, guzti hau ahalbidetzen duen salbuespeneko espetxe politika indarrean dago.

Gainera, bizi dugun egoera berezia dela eta, espetxean ez dago distantzia sozialerako aukerarik ez eta osasun segurtasunik, kanpo komunikazioak murriztuak izan dira, bis a bisak etenak ...

Hau horrela izanik Udalbatzari honako mozioa onartzea eskatzen diogu:

#### MOZIOA:

- 1.- Debako Udalak, elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal izateko, Euskal Preso Politikoei ezartzen zaien salbuespeneko espetxe politika bertan behera utzi eta presoentxeratzeprosesua abian jartzea ezinbestekoa dela adierazten du.
- 2.- Udai honek, Urtarrilaren 9an Deban egingo den mobilizazioan parte hartzeko deialdia egingo du.
- 3.- Debako udalak, balkoi nagusian, U9ko mobilizazioaren berri ematen duen kartela ipintzea onartzen du, modu honetan Sareren aldarrikapen hauekin bere adostasuna adieraziz.

Deban, 2020ko abenduaren 10ean



2020-12-15: fileveta leih opina  
du 2020-12-15